

Amaia Elizagoien - Barra ertzeko kontakizunak

Kontalaritza eskola. Ahozko narrazio ikuskizunak.

Vital Fundazioa Kulturunea

A Aretoa

2026ko apirilaren 20a

20:00etan

Euskaraz



Vital Fundazioa Kulturuneak proposamen berri bat hartu du Gasteizko kultur programazioan laguntzeko, Amaia Elizagoien protagonista duen 'Barra ertzeko kontakizunak' ahozko narrazio ikuskizuna.

Informazioa

Ikuskizuna

Gure herriko tabernak ongi etorri izena zuen. Barraren bi aldeak ezagutu nituen. Bertatik ez ziren bezeroak bakarrik igarotzen, istorioak ibiltzen ziren dantzan eta gu haiekin hazi ginen. Musikarekin lagundutako kontakizun honen bitartez, gurekin bidaia bat egitera gonbidatu nahi zaituztegu, txoko txiki bateko unibertsoa ezagutzera.

Amaia Elizagoien

2015etik bakarka zein musikariekin batera aritzen da kontalari Euskal Herrian barrena. Haur

Hezkuntzako goi mailako zikloa eta graduaduna, Bartzelonako Escuela laboratorio de teatro-n ikasi du. Telebistan eta irratan aritu da aurkezle lanetan. Gaur egun ahozkotasuna eta literatura ditu ofizio eta afizio.

Sarrera

Sarrera librea edukiera bete arte.